

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Clara Campoamor kaleko 24.eko I-5099 aretoaren gaineko azalera-eskubidea eratzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko martxoaren 11ko truke-erabakia betetzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 11n egindako bilkuran:

Clara Campoamor kaleko 24.eko I-5099 aretoaren gaineko azalera-eskubidea eratzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko martxoaren 11ko truke-erabakia betetzeko.

2019ko martxoaren 11n egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Clara Campoamor kaleko 24. ean duen aretoa VISESAk Hondarribi kaleko 34. ean duen aretoarekin trukatzeko, udalaren elkarte-sarerako.

Erabakia hartu ondoren, behar ziren izapideak egiten hasi ziren eragiketa horiek Korporazioaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean jaso, eskritura publikoa egin, eta titulartasun berriak Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko.

Une horretan ohartu ziren ezen, Udalak Clara Campoamor kaleko 34. zenbakiko higiezinaren jabetza osoa badu ere, VISESAk Hondarribi kaleko 34. zenbakiko aretoaren gaineko azalera eskubidearen titulartasuna baino ez duela; horrenbestez, hartutako erabakia egikaritzeko eta trukea zuzen formalizatu ahal izateko, udal titularitateko aretoaren gainean azalera-eskubidea eratu behar da VISESAren alde, trukearen bidez jasotzen denak duen epe bererako, epea amaitutakoan bi higiezinaren jabetza osoa azalera-eskubidearen emaitzen alde sendotzerik izan dadin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen testu bateginaren 53. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, azalera-eskubidea era daiteke lokalen eta eraikinen elementu pribatiboen gainean, azalera-eskubidedunari esleitzen zaiolarik horien aldi baterako jabetza, bere horretan utzirik lurzoruaren titularraren jabetza berezia; azalera-eskubidea baliozkotasunez era dadin, beharrezkoa da hura eskritura publikoan formalizatzea eta eskritura Jabetza Erregistroan inskribatzea.

Udalaren titularitateko aretoa I-5099 gisa ("aretoa Clara Campoamor kaleko 24. ean") dago jasota da inbentarioan, lurzoru-ondareko izaera juridikoarekin, eta 3. Jabetzaren Erregistroan inskribatuta dago —4.553 liburukia, 785 liburua, 59. orria, 38.757 funts-zenbakia—. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 128. artikuluan ezarritakoari jarraituz, azalera-eskubidea baldintza hauekin eman eta eratzen da:

Berrogeita hamabost (55) urterako eman eta eratzen da azalera-eskubidea, dagokion eskritura publikoa formalizatzen denetik kontatuta. Epe hori igaro ondoren azalera-eskubidea iraungitzen delarik, azalera-eskubidea zuenak eraikitakoaren jabetza bereganatuko du Vitoria-Gasteizko Udalak, eta hari ez dio inolako kalte-ordainik ordaindu beharko.

Azalera-eskubidea kostu bidez eratuko da, Udalak ordainean jasoko baitu Hondarribi kaleko 34. zenbakiko aretoaren gaineko azalera-eskubidea, trukearen bitartez.

Agiri honetan eraturako azalera-eskubideari ezain karga ezarri nahi bazaio, edo hirugarren baten eskura jarri nahi bada, Vitoria-Gasteizko Udalak aurretik eta espresuki baimendu beharko du, ezarritako gehienezko epea betetzeko muga bakarrarekin.

Akordio honek sortutako notario zein erregistro gastuak alde bakoitzaren kontura joango dira, jasotzen den higiezinaren arabera.

Azalera-eskubidea Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 11ko bilkuran hartutako erabakia egikaritzeko eratzten da, hain zuzen ere, erabakitako trukea formalizatzeko, eta hori tramitatzeko Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 110. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu zaio; orobat, nahitaezko balioespen-txostena jaso da dosierrean, eskriturari erants dakion.

Balioespen-txosten teknikitik ondorioztatzen da bi ondasunen balioen arteko aldea ez dela handienaren balioaren 100eko 40tik gorakoa, eta VISESAren alde 6.563,23 euroko saldoa geratzen dela, Udalak trukean jasotzen duen higiezina baita balio handienekoa.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak zehazten ditu toki erakundeetan kontratatzeko berariazko arauak eta, horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da erabaki hau hartzea. Hori dela eta, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau igortzen dio:

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 11ko bilkuran hartutako erabakia egikaritzea, eta horretarako, VISESAren alde berrogeita hamabost urterako (55) azalera-eskubidea eratztea Clara Campoamor kaleko 24.ean dagoen aretoaren gainean —inventariooan I-5099 erreferentziaz jaso, udalaren lurzoru ondarearen izaera juridikoaz—.

Bigarrena. Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate lehendakariari ahalmena ematea erabaki hau eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 11ko bilkuran hartutakoa gauzatzeko hartu behar diren erabakiak hartu eta sinatu behar diren dokumentu publiko edo pribatuak sina ditzan, baita zuzendu ditzan ere, beharrezkoa bada.

Hirugarrena. Erabaki hau jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, ALHAOn eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuz.

Laugarrena. Erabaki honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari.

Bosgarrena. Erabakia VISESAri eta Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 30ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE